

EUDELEN BATZORDE ERAGILEAREN OHARRA, EUSKADIKO TOKIKO ERAKUNDEEI BURUZKO LEGEKO ZENBAIT ARTIKULUREN INGURUKO DESADOSTASUN ZEHATZ BATZUK DIRELA-ETA, EUSKO JAURLARITZAREKIN ALDEBIKO BATZORDEA ERATZEKO OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIOEN MINISTERIOAK EGINIKO “GONBIDAPENARI” BURUZ

Sarrera

Estatuko Gobernuak “gonbidapen” bat aurkeztu du, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko Aldebiko Batzordera deitzeko; hain zuzen ere, **desadostasun zehatz batzuk planteatzen ditu Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 14ko 2/2016 Legeko 14 artikuluren** (osorik edo zenbaki batzuk) **konstituzio-kontrakotasun posiblearen inguruan.**

Aldebiko Batzordea eratzeko prozedura “lankidetzaz” bat da (horrela deitzen zaio Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren idazkian), lege horri, hala badagokio, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa jarri aurretik. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa aurkezteko hiru hilabeteko epea bederatzi luzatuko da (2017ko urtarrilaren 15era), Eusko Jaurlaritzak aipaturiko batzordea eratzea onartuz gero. Bestela, uztailaren 15a baino lehen konstituzio-kontrakotasuneko errekurto bat jar liteke Konstituzio Auzitegiaren aurrean, eta errekurto horretan aurkaratutako xedapenak eteteko ere eska lezakete, orain arte eskatu izan denez.

Hona hemen Estatuko Gobernuak zalantzan jartzen dituen ETELeko artikulua:

6.1-6.2 Euskara

27.3 Alkatearen eskuordetzak

30.2 Gobernu Batzordearen bilkura publikoak

31.2. Udalerrien hauteskunde-araubiderako foru-eskumena

32.4 Arduraldi eskusiboa ez dutenen ordainsariak

38 Zuzendaritza-kide publikoak

40 Zuzendaritza-kide publikoen postuak betetzea

68 Herritarren parte-hartzea eta tokiko autoantolaketa-arako ahala

80.5 eta 80.6 Herri-galdeketa

82 Politika publikoei edo garrantzi bereziko erabaki publikoei buruzko toki-mailako herri-galdeketa

115. Zorpetze-araubidea, aurrekontu-araubidea eta kontabilitate-araubidea

116 Tokiko erakundearen plan ekonomiko-finantzarioak

Lehen xedapen gehigarria. Tokiko araugintza-ahala

Hirugarren xedapen iragankorra. Jarduera, zerbitzu eta prestazioekin jarraitzea

Batzuetan, artikuluko osoak jartzen dira zalantzan, eta beste batzuetan, zenbaki batzuk bakarrik. Era berean, nahiz eta Ogasun eta Herri Administrazioen Zuzendaritza Nagusian “desadostasun zehatz batzuk” aipatzen diren, desadostasun horiek erabatekoak dira zenbaitetan (legearen konstituzio-kontrakotasuna zuzenean planteatzen da, hain zuzen, arrazoi formal edo materialengatik, haien inguruko adostasuna lortzeko aukera gutxi egongo delarik, ziurrenik), eta beste zenbaitetan, aldiz, interpretaziozko desadostasunak dira, Aldebiko Batzordearen akordioz interpretatzeko irizpide komunak ezartzeko helburua dutenak, gero konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa baztertze aldera.

Agiri honen eranskinean, kasu bakoitzean (artikuluz artikulua, alegia) desadostasunak justifikatzen dituzten arrazoiak azaltzen dira labur-zurrean. Alabaina, Zuzendaritza Nagusiaren oharrean ageri den argudiaketa oso urria da, pobre samarra pasarte batzuen inguruan, baita kontraesankorra ere (okerra ez denean) beste batzuetan. Irizpide-elementurik ere ez du ematen desadostasunaren egiazko arrazoiei buruz, zenbait kasutan ez behintzat.

Aldebiko Batzordea eratzeke gonbidapenaren formalizazioa egiaztatu, zalantzan jartzen diren legeko xedapenak zein diren zehaztu, eta Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak aurkaratutako artikuluen inguruan emandako “argudioak” aztertu eta gero, EUEDELen Batzorde Eragileak ondorengoa adierazten du horren gainean:

EUDELEN BATZORDE ERAGILEAREN JARRERA

1.- Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko Legeko artikulua jakin batzuekin **Estatuko Gobernuak adierazitako desadostasunek argi erakusten dute ez dela lege horren irismena ulertzen, oso lege aurreratua izanik, ezbairik gabe, esparru konparatuan, Euskadiko tokiko erakundeen autonomia eta autogobernua sendotzeko xedea duen legea. Lege hori, gainera, duela gutxiko “tokiko erreforma” ez bezala, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean oinarritu da, eta Euskadiko tokiko gobernuei zenbait tresna emateko xedea du, gobernatzeko gaitasunak zein herritarren bizikaltatea hobetzeko, bai eta gobernuaren toki-maila gaur egun tokiko gobernantzaren arloan finkatuen dauden joeren ildotik bideratzeko ere.**

2.- **Jokabide horrekin, Estatuko Gobernuak** –Estatuaren eskumenei eragiten zaielako aitzakiarekin eta oso irakurketa murrizgarria eginez XXI. mendean toki-mailako gobernu eraginkor, garden, oso eta parte-hartze bidezko batek izan behar duenari buruz– borondate argia erakusten du, batetik, **drastikoki mugatzeko garrantzizko zenbait puntutan (euskara, eskumenak, antolakuntza, parte-hartzea, etab.) EAEko tokiko erakundeen tokiko autonomiaren eragin-eremua, eta, bestetik, Euskadiko legegileak esparru hori zabal dezan galarazteko.** Eta hori guztia egiten du, itxuraz, orain dela 30 urte baino gehiago eratu zen oinarritzko lege-esparru baten defentsan; esparru hori, hain zuzen, tokiko autonomia murrizten zuen modu batean erreformatu zen 2013an, eta ez da egokia XXI. mendeko bigarren hamarkadako tokiko erakundeentzat Euskadin. Zehatzago esanda: **halako desadostasunak agertuz, Estatuko Gobernuak ez du ez egiten, ez egiten uzten, edo hori da haien bitartez lortu nahi duena.**

3.- **Desadostasun horiek formulatzea, halaber, jokabide politiko larria da. Euskadiren autogobernuaren oinarrietako batzuei eragiten dielako, batik bat, eta udal-autogobernuaren funtsezko alderdiak ukitzen dituelako. Ez da kontu hutsala, hain zuzen, euskararekin berezko hizkuntzatzat (“normala eta orokorra”) zerikusia duten zenbait artikulua edo Ekonomia Itunaren ondoriozko eskumen ekonomiko-finantzarioei estu lotutako zenbait alderdi zalantzan jartzea, itun hori izanik Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian finkaturiko sistema berezi bat. Desadostasunezko irakurketa horiek, haien irismena gorabehera, Euskadiren autogobernuaren muinean bertan kokatutako arlo batzuei eragiten diete.**

4.- **Ez da ardurarik gabeko kontua, halaber, tokiko autonomiaren funtsarekin lotura estua duten alderdiak aurkaratzea, hala nola, udal-eskumeneen araubideari (iragankorrak izanik ere) edo udalen autoantolaketa-ahalei dagozkienak, ordezkaritza-karguentzako bertaratze-araubidearen, ordezkaritzen zein zuzendaritzakideen aldetik. Errotik ukatzen zaizkio Euskadiko legegileari arauak garatzeko eskumenak.**

5.- **Desadostasunak herritarren parte-hartzea arautzen duten alderdi jakin batzuetara ere zuzentzen dira.** Estatuko Gobernuaren jarrera da Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (TAOL) zein beste kasu batzuetako jurisprudentzia konstituzionala hertsiki interpretatzea. Berriz ere, **Estatuaren “argudioek” galarazi egiten dute gaur egun bideak azter daitezen, gobernuaren tokiko arloan, ordezkaritzako demokraziaren indarra osatu eta sendotzeko. Oinarritzko legedia monolitiko eta uniformetzat ulertzen du.** Tokiko erakundeak herritarren parte-hartzeari irekitzea gero eta gehiago ari da eskatzen, eta beharrezkoa da erakundeok herritarren aurrean legitimatzeko (tokiko gobernantzaren ildotik). Adierazitako desadostasunek bizkar ematen diote errealitate horri.

6.- Horrenbestez, **Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko Legearen inguruan Estatuko Gobernuak agerturiko desadostasun-multzo horren helburua da Euskadiko tokiko erakundeek Tokiko Gobernuaren arauketaren joera aurreratuenen bidetik jo dezaten oztopatzea, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean ezarritakoaren ildotik. Atzera ere iraganera eraman nahi gaituzte, “formalak baino ez diren” justifikazio batzuk oinarri hartuz:** hau da, ETElen arauketa hori Estatuaren oinarritzko legeria bati ez egokitzea. Argi utzi behar da Estatuko Gobernuak etengabe aitzakiatzat erabiltzen duen oinarritzko legeria hori puntu askotan ez dela egokia tokiko egungo errealitatearen alderdi askotarako, zaharra dela, eta oso tresna gutxi eskaintzen dizkiela XXI. mendeko bigarren hamarkadako tokiko gobernuari, orain dela urte asko arauen bidez erantzuna eman zieten oso bestelakoak diren ingurune instituzional eta gizarte batzuei aurre egin diezaieten, erantzun horietako batzuk berriagoak diren arren, baina biziki okerrak.

7.- Hitz batean, **desadostasun hauek formalizatzean, Estatua galarazten ari da Euskadiko tokiko autogobernuan aurrera egin dadin, eta zailtzen ari da tokiko gobernu eraginkorragoa eta arduratsuagoa lortzeko trabak edo oztopoak kentzen dituen edozein neurri; horretarako, Euskadiren autogobernuaren funtsezko alderdiak (sentiberatasun berezia ere eragiten dutenak) ukitzen ditu, hala nola, berezko hizkuntzaren (euskara) eta Ekonomia Itunaren ingurukoak, bi horiek izanik, ezbairik gabe, euskal nazio berezitasunaren oinarri-oinarritzko bi ikur.** Baina, era berean, tokiko gobernuaren (edo hobeki, tokiko administrazioaren) irudi zaharkitua iradokitzen ari da, eta Euskadiko erakundeek haren garapen eraginkorraren aldeko apustua egin dezaten ari da galarazten. Toki-eremuk munduan euskarak duen rola ez duela inola ere ulertzen erakusten du, tokiko erakundeen antolakuntzarako autonomia baztertzen du (tokiko zuzendaritza-egituren gaineko ikuskera tradizional eta zahar batekin), eta errotik ukatzen du edozein berrikuntza, tokiko politikak garatzean herritarrei ahotsa emateko arloan. Jokatzeko modu hori tokiko erakundeen kalterako da, baina batez ere Euskadiko herritarren kalterako.

8.- Horregatik guztiagatik, EUEDElen Batzorde Eragileak:

- a) Dei egiten dio Estatuko Gobernuari, Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 14ko 2/2016 Legearen aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua jartzeko asmoari uko egiteko.**
- b) Estatuko Gobernuak aipatutako errekurtsua jartzeko asmoari eusten badio, dei egiten dio Eusko Jaurlaritzak Aldebiko Batzordean duen ordezkaritzari, Legearen espiritua defenda dezan, bereziki aintzat hartuz euskara berezko hizkuntzatzat errespetatzea, Euskadiko udalen autoantolaketarako ahalak zein eskumenak babestea, eta Euskadiko tokiko erakundeen arlo ekonomiko-finantzarioan Ekonomia Itunari buruzko Legearen ondorioz dauden berezitasunak ere zaintzea.**

Bilbon, 2016ko uztailaren 14an